

IRUNGO EMAKUMEEN ETXEA DISEINATZEKO PARTAIDETZA-PROZESUAREN 2. FASEA

EMAKUMEEN GOGOETA-GUNEAREN 7. LANSAIOA:

Eguna: 2022-5-14

Ordua: 10:00-14:00

Lekua: Palmera Montero gunea

Partaideak: 25 emakume eta Talde Motorreko kideak

Gai-zerrenda:

1. Saioa aurkeztea.
2. Elkartearen Estatutuetan korapiloak eta ideia garrantzitsuak identifikatu.
3. Elkarterako behin-behineko lantaldea eta lanak.
4. Etxearen izena
5. Prozesua baloratu

Akta:

1. SAIOA AURKEZTEA:

Azken saiora iritsi garelara esanez hasi du hitzartzea Mirenek, eta orain arteko parte hartzeko egindako esfortzua eskertu digu partaide guztioi.

Bergogoratu du Emakumeen Etxearen proiektua definitzeko eztabaidatu eta adostu ditugun gai guztiak:

1. Etxearen helburuak
2. Etxearen printzipioak
3. Erabiltzaileak
4. Jarduerak eta ekintzak
5. Espazioaren banaketa
6. Espazioaren erabilera
7. Kudeaketa Organoak
8. Bermeak



Ondoren, Elhuyarreko dinamizatzaileei eman die hitza.

2. ESTATUTUEN KORAPILOAK ETA IDEIA GARRANTZITSUAK

Estatutuetaz hitz egiten hasi aurretik, bergogoratu dugu prozesuaren helburuak zeintzuk ziren. Jada, beteta dauden helburuak dira. Saioaren bigarren zatian baloratuko dugu ongi edo gaizki bete diren, emaitza eta prozesuak baloratzeko ariketetan.

Saioaren lehen zatian, ordea, partaideengandik etorri den eskaera bati erantzun nahi izan diogu: **Irungo Emakumeen Etxean emakumeen partaidetza ofizialki antolatzeko elkartearen estatutuak eztabaidatzen laguntzea.**

Eztabaida ordenatzea izan da ariketaren asmoa, hau da korapiloak identifikatzea. Izan ere, elkartearen estatutuak adostea Elkarteko kideei dagokie.



Estatutuen kopia bana eskutan, talde txikitan elkartu gara estatutuen proposamenean jasotako kontuak identifikatzeko (ez eztabaidatzeko).



Fitxa handi batean, talde bakoitzak identifikatutako argi eta ilunak jaso ditugu. Ondoren, plenarioan bildu gara, eta talde bakoitzak berean ateratako ideiak azaldu ditu talde handian.

Ondorioak hauek izan dira:

ESTATUTUEI ARGIA EMATEN DIOTEN IDEIAK	ESTATUTUETAN IDENTIFIKATUTAKO KORAPILO EDO DESADOSTASUNAK
<ol style="list-style-type: none"> 1. <i>Udalarekin elkarlana egiteko tresna izatea Elkartea.</i> 2. <i>16. artikulua, zuzendaritzaren ROTAZIO proposamena, egokia.</i> 3. <i>Bazkidetza doakoa izatea</i> 4. <i>Bozka bakarra izatea ordezkatu daitekeena, egokia, baina ezin etorri izana justifikatzea sartzea komeni, eskakeoak ekiditeko.</i> 5. <i>Emakume eta pertsona ez bitarrak jasotzea, oso ondo, baina parentesia kendu.</i> 6. <i>Balioetan, aniztasuna, ahizpatasuna eta gardentasuna jartzea, klabea da. Horrez gain, malgutasuna hitza ere gehitu.</i> 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Bozka ordezkatzeko sistema 2. <i>Bozka ordezkaturia, gehienez % 20 jartzen du. Hau gaitutuko balitz, guztiak bihurtuko liriteke nulo</i> 3. <i>Bilerak telematikoki jarraitzeko aukera.</i> 4. Batzar Orokorrak deitzeko bazkide kopurua (% 10 egokia da?) 5. Zuzendaritza Batzordeko kide kopurua. (Batzuek 3 kargu + 7 bokal; beste batzuk minumoa eta beste 3 bolondres; beste batzuk bi zuzendari, bi idazkari eta bi diruzain...) 6. <i>Zuzendaritzako kideak ezin dute beste kargurik izan beste elkarteetan? Edo bakarrik lehendakariak?</i> 7. Bazkideak Irungoak izan behar ote duten sartu edo ez.

Ohar garrantzitsu bat: Elkarteko Estatutuen proposamenean, euskaraz eta gaztelarazko bertsioan, zenbakiak ezberdin daude. Partaide guztiek jaso dute dokumentua bi hizkuntzatan. Bertan aldaketak txertatzea, Irungo Emakumeen Etxea elkarteko kideen esku egongo da.

Bestetik, atal honekin amaitu aurretik, Koldok azalpenak eman ditu elkarte erregistratzeko tramitearen inguruan. Gaur egun on-line egin daiteke dena, baina horretarako, lehen pausoa, IZENPE txartela ateratzea da, on-line tramiteak elkartearen izenean egiteko. Txartela doakoa da.

Ondoren, on-line erregistratu beharko dira Eusko Jaurlaritzako elkarten erregistroan honako dokumentuak:


- Elkartearen Estatutuak
- Sortze akta.

Irungo Udalean erregistratzea garrantzitsua izango da, inork udalean galdetuko balu zein emakume elkarte dauden Irunen, elkarte hau zerrendan egon dadin.

3. ELKARTEAREN BEHIN BEHINEKO LANTALDEA ETA LANAK

Aurreko ariketan argi geratu da estatutuak onartzea dela elkarte sortzeko hurrengo pausoetako bat. Baina pauso gehiago geratzen dira bidea egiteko.

Aurrera begirako lanak zerrendatu ditugu, eta ondoren, bakoitzak bere izena jarri du postit batean, eta lanen batean kokatu du bere burua.



Identifikatutako lanak:

1. *Bazkideen jarraipena: 5 pertsona*
2. *Asanblada deitu: 3 pertsona*
3. *Estatutuak erregistratu: 2 pertsona*
4. *Udalarekin interlokuzioa: 2 pertsona*
5. *Inaugurazioa: 3 pertsona*

Telefonoak eta emailak elkar banatu dituzte partaideek. Lantaldeekin harremanetan jartzeko hemen kontaktuak:

irungoemakumeenetxea@gmail.com (Irene: 665735333 edo Ros: 637860735)

4. ETXEAREN IZENA

Hasiera batean, aurreikusia zegoen izenen proposamenak egitea prozesuko partaideek. 20 bat izen espero ziren, baina 5 jaso dira. Hurrengo pausoa zen partaideen artean 3 izen aukeratzea, ondoren Irungo emakumeei, bozka bidez izena aukeratzeko bidea irekitzea.

Baina soilik 5 izen bakarrik proposatu direnez, bostak bozkatuak izateko aukera ematea erabaki da. Izen hauen alde eta kontrako argudioak 5. Gogoeta saioaren aktan topatuko dituzue.

Julia Iruetagoiena

Irungo Emakumeak / Mujeres de Irun

Irungo Lamien Etxea / Casa de las Lamas de Irun

Irungo Emakumeen Etxea / Casa de las mujeres de Irun

Txinparta Etxe Feminista


Maiatzaren 31 bitarte egongo da bozkatzeko aukera.

5. PROZESUAREN BALORAZIOA:

Prozesua amaitzeko, prozesua bera baloratu dugu.

Lehenik, irailetik maiatzera bitarteko lanei hiru helburu ezarri zitzaizkiola gogoratu dugu.

Hiru helburu horiek bete diren arren, parte hartzaileen ustez, helburu horiek nola bete diren jakin nahi izan dugu. Honela, 1 eta 10 bitartean asetasun maila baloratzeko eskatu diegu:



Emaitza honakoa izan da, parte hartzaileen balorazioaren batz bestekoa helburuka:

- 8

Irungo Emakumeen Etxearen ezaugarri nagusiak zehaztea udalerriko emakumeekin, eragile feministekin eta emakumeen elkarteekin **elkarlanean**.


- 7

Emakumeen Etxean gauzatuko den **tokiko erakunde publikoaren eta emakumeen nahiz eragile sozialen arteko elkarlanerako baldintzak sortzea**, gutxieneko konfiantza-giro bat sortuz.

- 6

Irungo emakumeen, eragile feministen eta emakumeen elkarteen **arteko harremanak landu eta sareak eraikitzea**, elkarlanerako baldintzak sortuz.

Ondoren, bigarren ariketa egin dugu. Oraingoan, idatziz jaso dugu partaideen iritzia, orokorrean zer izan den gehien gustatu zaiena eta zer den hobetuko luketena galdetuz. Postit handietan eman digute iritzia:




Jasotako ekarpenetan, oro hau, asetasun maila handia dago. Baina has gaitezen hobetzeko ekarpenetatik.



Las sesiones han sido muy largas. El número de horas de las sesiones. Desilusión porque no han participado todas las mujeres que se apuntaron, al final lo hemos hecho la mitad. Kontu batzuk zehaztuago gelditu izana nahiko nuke. Informazioa batzuetan ez zen oso argia, hala ere, azalpenak entzunda ongi moldatu naiz. Gogoeta guneen artean ez da hausnarketarako tartetik egon, horrek prozesua moteldu duela uste dut. Ariketa batzuk haur txikiak bagina bezala zuzenduak, eraginkorra izan arren, batzuetan zuzenduegia. Maiztasuna. Eztabaida batzuetan errepikatu dira behin eta berriz eta ez da ezer aldatu. Gustatuko litzaidake Elkarteko Estatutuena gehiago aurreratu

izana, edo itxi izana. Personalmente, hubiera puesto más medios para que otras mujeres pudiesen participar.

Prozesuaren alde onei buruz honakoa azpimarratu dute partaideek:



Buen ambiente creado en el grupo, con dinamicas, etc...metodología buena. Helburuak beteta. La dinamización muy buena. Gestión del tiempo, muy buena. No evitar temas polémicos, como algo positivo. Hacer fácil los temas difíciles. Eskertu egin duzuen lana botere-harremanak horizontalak izateko. En general, todo positivo. Metodología, jokuak, marrazkiak, eskemak...Todo correcto. Gracias por vuestra paciencia. Prozesu osoan euskara bermatu izana, elkarrizketa sustatu izana, entzuteko denbora hartzea, aniztasunari eskainitako arreta. Genial, gracias. Goxotasuna, pazientzia, aniztasuna, euskara, dinamika politak, sugusak, transfeminsimoari leku egitea, aldaketei ongi egokitzea. Gai konplexuak simple egitea. Me ha gustado la diversidad de pensamientos. Saio gutxitan parte hartu arren gustora sentitu naiz. Eraginkorra. Zaintzari garrantzia ematea.

Azkenik, hirugarren ariketa egin dugu prozesua bukatzeko. Borobilean jarri gara. Banan banan, bakoitzak prozesutik zer eramaten duen esan du hitz batean, elkarri artilezko bola bat botatzen genion bitartean. Denok eramaten dugu zerbait prozesu honetatik.





Mila esker, guztioi, prozesuan parte hartzeagatik.

EMAKUMEEN GOGOETA-GUNEKO PARTAIDEAK:

EMAKUMEEN ETXeko GOGOETA GUNeko PARTAIDEAK			
Ana Calzado	Clara Lopez	Estitxu Urbina	Irene Kastezubi
Lucia Iraundegui	Lucia Elizondo	Maite Cano	Maria Luisa Torres
Maria Luz Nuñez	Maria Ruiz	Maria Teresa Sanchez	María Valiente
Maritxu San Pedro	Olga Rivas	Rosa Valiente	Rosario Campo
Begoña Zaballa	Raquel Calvo	Ana Gálvez	Marisa Soto
Celia Bernal	Koro Bidaurreta	Miren Nekane Narbaiza	Aranzazu Estivariz
Mari Jose Gonzalez			

Proiektuko arduradun politiko teknikoak		Interpretea
Miren Echeveste (arduradun politikoa)	Koldo Zabala (arduradun teknikoa)	Amaia Imaz

Proiektuko bideratzaileak (Elhuyar)	
Joxepa Bornaetxea	Eli Etxabeguren